

Mizpira ezin sudurretik kendu



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Mespilus germanica mizpirari tiraka segitzeko asmotan nauzu. Umetatik nire arreta erakarri izan duen fruitua da mizpira. Txakurraren atzetik eskopeta kanoi paralelo bikoa aurrera luzatuta zeraman aitonaren atzetik ibiltzen nintzanean, jeneralean oilagorretara joanda, erreka zulo sastrakatsu batetik ezin aurrera egin eta aurrerabidea moldatu nahian goraxeagotik abiatu eta koxkaren bizkarrean hara, danba, topo berarekin. Basoaren zilborrean hantxe, mizpirondo ikaragarri bat zabal-zabal hedatua. Ehiztariak beti zorroa aldean, eta ordu-rako lurrean ziren mizpira gainumotuak bildu egin behar. Haiek zorrora biltzen eta arbolape hartan zegoen usaina eza-guna baina sailkaezina zitzaidan. Ehi-za txakurraren sudur mintzak alferrik izango zuen mizpiraren usain hura, nireak oilagorrena bezalaxe. Halako batean txirikordatu nituen, egoera, fruitua eta arbola eta nire usaimenaren memoriaren altzoan ostatu eman. Orduantxe, umetan, sagardoa zer zen ikasten hasi berria eta hartzitzen ari zen sagar muzzio haren usain bertsua mizpirondoaren inguruan. Fruituaren azukrea alkohol bihurtzen ari den hartzidura. Sagarra- ren muzzioak irakin egiten du barrikan; mizpiraren mami bigunak alean bertan, bere azalaren mugetan. Mazerazio edo

Mizpira (*Mespilus germanica*).

beratze karbonikoa egiten duten maha- tsen tankeratsu hartzitzen da mizpira, mamia usteldu orde gainumotuz. Umo- tze horren perfumea lurrindu egiten da, azalaz beste. Eta ume mokoaren sudur mintzetan betiko txertatu.

Gaur baino sudur mintz guriagoak eta pituitario zorrotzagoa nuen orduan, bai- na usain hark memoriaren apalategitik ez du alde egiten. Nahita ere berehala- koan galduko ez ditudan oroigarri horie- tako bat dela iruditzen zait. Etxeko atari aurrean ditudan mizpirondoen udazken aldeko usain hau ez daukat saltzeko.

Bateren bati bururatu zitzaion ba, baso gorrian elorri zuri hura (*Cratae- gus spp*) txertatu behar zuela; eta pen- tsatu eta hurrengo txerto sasoian joan eta egin.

Mizpiraren hartzigarri usaintsu ho- riek sagardoari eranstea burutik pasatu ba niri. Eta baita egin ere. Sagardoa- ri eta sagardo ozpinari mizpira ttant- ta. Ummm... Nahi duenak proba dezala edozein konfituratan, konpotatan, ez- ti-uretan... ■

ZURE ETXERA ETA BIZKOR!

denda.karrikiri.eus



KARRIKIRI euskal denda. Xabier karrika 4. Iruñea

KARRIKIRI.eus
IRUÑEKO EUSKALDUNON TOPAGUNA



50€-tik gorako
eskaerarekin
opari hau zure
etxean!